
Prensa oharra

Gaur irekiko da *Bihotz berdeak* programan berriztatzailean parte hartzeko hautapenaren izen ematea

- Kutxa Ekoguneak eta Aranzadi Zientzia Elkartek, Real Sociedad Fundazioaren laguntzaz, 12-15 urteko gazteei zuzendutako *Bihotz berdeak* programa berriztailea jarriko dute abian.
- Programa honen xedea Gipuzkoan naturzale gazteen mugimendua sortzea da.

Donostia, 2020ko uztailaren 29. Bihotz berdeak proiektuak gazteak naturan murgiltzea izango du helburu. Horretarako, bertan nola orientatu, landare eta animaliak nola identifikatu, eta ingurune naturaleko aldaketak, fluxuak eta prozesuak irakurtzeko trebakuntza jasoko dute. Saio hauek 2020ko irailaren 27an hasiko dira eta 2021eko maiatzaren 30ean bukatu.

Taldeak biologoa den gidaria eta saio bakoitzean zientzialari gazte bat izango du lagun: naturan orientatzen dakienak, ornitologoak, entomologoak, botanikoak, mikologoak, etab.

Animaliak atsegin dituenak, mendiko txangoen zalea denak, poltsikotan intsektuak sartzeko ohitura duenak, ... igandeetako plan zoragarriak eginez asetuko du zaletasun hori. Landare bildumak egin, zuhaitzak eta txoriak ezagutu, eta intsektuen bizi estrategiak ulertuko ditugu; *Bihotz berde* bihurtzeko aukera izango dute gaztetxoek. Ziur gaude mundua eraldatzeko giltzarriak izango direla hurrengo urteetan; horregatik sortu dugu *Bihotz berdeak* programa.

Partaideen hautapena

Bihotz berdeak programan parte hartzeko gazteen hautaketa egitea beharrezkoa da, naturarekiko interesa, sentsibiltatea eta jakin mina duten 30 gazteen bila gabiltza; motibazio handiko gaztetxoak, ibilbide osoa egiteko prest daudenak.

Programaren informazioa izango dute eskura Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Kutxa Ekoguneko web orrietan eta Kutxa Ekoguneko web orriaren bidez hautaketa prozesuan izena emateko aukera uztailaren 29tik irailaren 21 arteko epean.

Informazio gehiago: <https://ekogunea.eus/eu/ekogunea/bihotz-berdeak-2020/3-52/>
edo idatz ezazu naskargorta@kutxa.eus helbidera.